

B.29. BESTE BATZUK / VARIOS

B.29.1. **Arrolako barruti gotortua (Arratzu, Mendata, Nabarniz)**

Zuzendaritza: Miguel Unzueta Portilla
Finantziakzioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.29.1. **Recinto fortificado de Arrola (Arratzu, Mendata, Nabarniz)**

Dirección: Miguel Unzueta Portilla
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The archaeological excavation focused on those sectors identified as the north-western and southern gates. In the latter, we were able to partially demarcate two rectangular bastions and the original crown of the wall.

Bi sektoretan eraman ditugu burura lanak, ipar-mendebaldeko atea eta hegoaldeko atea deitu sektoretan. Lehenengoak orain arteko indusketa lanak bildu dituen aztarnategiko eremua hartzen du, eta bigarrenak *oppidum*-era sartzeko bigarren ateak, soilik itxura orokorra ezagutzen genuen ateak, okupatzen duen espazioa.

Ipar-mendebaldeko atearen sektorean, sarrerako eraztunari dagokion atalean, mugatu egin genuen babesteko barrutiaren kanpoko lubanarroa, eta barrutiaren barnean VI. eta VIII. eremuetan aurkitutako etxebizitzak induskatzen jarraitu genuen. Identifikatutako etxolak, denak oinplano angeluzuzenekoak, harresi atalari atxikita daude induskatutako azaleraren luzera osoan, eta beraz, bizitoki oso trinkoko eremuan, terrazaren modura antolatutako espazioaren parte handiena hartuko zuen eremuan, egokitzen direla uste dugu guk, ipar-mendebaldeko eta hegoaldeko ateen artean, Ebro Haranean dokumentatutako herrixken modura, erdiko kale baten inguruan antolatutako herrixken modura.

Los trabajos de campo se han desarrollado en dos sectores, el conocido como puerta noroeste y el correspondiente a la puerta sur. El primero de ellos comprende la zona del yacimiento en la que se han concentrado las labores de excavación hasta el presente, mientras el segundo abarca el espacio ocupado por una segunda puerta de acceso al *oppidum*, de la cual apenas se conocía su traza general.

En el sector de la puerta noroeste se ha procedido a delimitar el foso exterior del recinto defensivo en el tramo correspondiente al anillo entrante, mientras en el interior del recinto se ha proseguido con la excavación de las viviendas localizadas en las áreas VI y VIII. Las cabañas identificadas, todas ellas de planta rectangular, se disponen pegadas al lienzo de la muralla a lo largo de toda la superficie excavada, lo que hace suponer que formaban parte de un horizonte de habitación muy denso que pudo abarcar la mayor parte del espacio aterrazado comprendido entre las puertas noroeste y sur, al modo de los poblados de calle central documentados en el Valle del Ebro.



Arrolako barruti gotortua. Hegoaldeko atea kanpotik ikusita.

Recinto fortificado de Arrola. Puerta sur vista desde el exterior.

Indusketa lanen xede izandako bigarren sektoreari dagokionez, hegoaldeko atearen sektoreari dagokionez, aipagarria da aurkitutako bastioi sistema konplexua, ipar-mendebaldeko atekoak bezala sarrera monumentalak sortzeko, kastroaren alde honetan ondo babestuta egongo zen sarrera sortzeko, balioko zue-na. Induskatutako aldeak soilik gotorlekuaren erdi mendebalde hartzen du, kanpoko espazioa bezala barrukoa, baina oraindik ez dugu sarrerako korridorea aurkitu. Hasteko gotorlekuaren lehen aldiko harresiaren gailur kurbatua identifikatu ahal izan genuen. Geroago oinplano angeluzuzeneko eta landu gabeko harriz egindako bi gorputz handi eratziki zizkioten harresiari, barrutirako sarbidea aurreko aldetik eta alboetik babes-ten zuen defentsa aurreratua eratzeko. Bastioi bi hauen oinplano osoa artean zehaztu gabe dugun arren, egitura konplexuago baten atala osatzen zutela aurreratu dezakegu inguruko lur eremuaren topografiari erreparatzen badiogu. Egitura honek artean agerian utzi gabeko atearen alboko elementuen antzekoak izango zituen. Aztarnategiko beste alde batzuetan be-zala, hemen ere harresi atalak sendotzeko zurezko ha-beak erabili zituztela esan behar dugu. Alde honetan zutiko bat bereizten da identifikatutako landu gabeko harrizko gorputz bien artean, hura egokitzeko ziri-harri batzuk identifikatu baititugu haren oinean. Identifikatu-tako bastioietan ekialdekoenari leku egiten dion geru-zaren lagin batetik eta C14ren bidez lortutako data-zioari esker (Poz- 47054: 2230 ± 30 BP) egiaztatzen dugu nola K.a. IV.-III. mendeetarako alde hau baliatzen zuten herrixkara sartzeko.

En lo que respecta al segundo de los sectores obje-to de excavación, el de la puerta sur, es de destacar la localización de todo un complejo sistema de bastiones que, de forma similar a como se observa en la puerta noroeste, sirvieron para crear un acceso monumental fuertemente defendido en esta parte del castro. La zona excavada corresponde únicamente a la mitad occidental de la fortificación, tanto en su espacio exterior como in-terior, sin que haya sido posible localizar todavía el pasi-llo de ingreso. Se ha podido identificar en primer lugar el remate curvilíneo de la cerca correspondiente a la fase inicial de su configuración, al cual se adosaron poste-riormente dos cajones de mampostería de planta rec-tangular y notable envergadura que servían para crear una defensa avanzada que protegía frontal y lateralmen-te el camino de acceso al recinto. Aunque no se ha lo-calizado la planta completa de estos dos bastiones, se puede aventurar –dada la configuración topográfica del terreno circundante– que formaban parte de una estruc-tura más compleja que contaba con elementos similares de flanqueo en el lado de la puerta aún no exhumado. Como sucede en otras partes del yacimiento, contamos también aquí con evidencias claras del empleo de vi-guerías de madera para dar consistencia a los lienzos de la muralla. En esta ocasión se reconoce la disposi-ción de un pie derecho de madera en la confluencia de los dos cajones de mampostería identificados, reflejada en planta por varias cuñas de piedra que sirvieron para calzarlo. Una datación de C14 obtenida del estrato so-bre el que descansa el más oriental de los bastiones identificados (Poz- 47054: 2230 ± 30 BP) permite com-probar cómo ya en los siglos IV/ III a.C. esta zona era uti-lizada para acceder al poblado.

J.J. Cepeda Ocampo; M. Unzueta Portilla; J.I. Jiménez Chaparro

B.29.2. **Urdaibaiko itsasadarra. Itsas nabigazioa eta merkataritza itsasadarrean eta bokalean**

IV. itsaspeko miaketa kanpaina
Zuzendaritza: Mercedes Gómez Bravo
Finantziak: Bizkaiko Foru Aldundia;
Berak finantziatua

B.29.2. **Ría de Urdaibai. Navegación y comercio marítimo en la ría y desembocadura**

IV Campaña de prospección subacuática
Dirección: Mercedes Gómez Bravo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia; Propia

The 4th season of underwater prospecting focused on the central zone of Matxitxako Bay, between Erleko and Galdizpea Point. The only material documented on the sea bed was an iron anchor located in a rocky zone; also, in the intertidal area, a stone with a hole was found, similar in type to the ones discovered during previous seasons.

2007. urtean abiarazitako «Itsas nabigazioa eta merkataritza Urdaibai itsasadarrean eta bokalean» proiektuaren esparruan, beste itsaspeko miaketa kanpaina bat eraman dugu burura 2011ko irailean eta urrian. Oraingo honetan Matxitxako badiaren erdialdean egindako lan, Erleko eta Galdizpea lurmu-

Entre los meses de septiembre y octubre de 2011 hemos llevado a cabo una nueva campaña de prospección subacuática en el marco del proyecto «Navegación y comercio marítimo en la ría de Urdaibai y desembocadura», que venimos desarrollando ininter-rrupidamente desde el año 2007. En esta ocasión